

3. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektuaren barruan gizartetik kanpo sentitzen den edozein pertsona laguntzea izango da helburua. Beraz, segmentazioa ez da oso mugatua izango. Baina neurri batzuekin. Gure zerbitzuak publikoak izanik, zerbitzu hauen behar handiena dutenak jasoko ditugu.

Eskainiko ditugun zerbitzu hauek batez ere imigranteei zuzenduta egongo dira, normalean hizkuntza berri bat ikastea eta kultura berri batera ohitzea izaten delako oztopo handiena. Horrez gain haien helburuenetako bat lan egonkor bat bilatzea da, eta horretarako hizkuntza jakitea ezinbestekoa da. Baina hasieran esan dudun bezala zerbitzu hauen beharrak dituen edozeinek jasoko ditu gure zerbitzuak. Edozein pertsona mota jasoko dugu; adina, sexua, jatorria kontuan hartu gabe.

Argi utzi nahi dugu gure proiektuan integratzeko laguntza behar duen edozein lagunduko dugula, baina imigranteek lehentasuna edukiko dutela zerbitzuak jasotzerako orduan. Erasmuseko ikasleak ere onartuak izango dira baina esan duduan bezala imigranteek lehentasuna edukiko dute.